

Mikel Laboaren esperimentazioa esperimentazio iturri

Gernikako bonbardaketaren urteurrenarekin bat estreinatuko da *Gernika Lemoizen*. Mikel Laboaren *Lekeitio*etako bat Lemoizko testuinguruan lekututa interpretatzen duen dantza flamenko garaikidea du ardatz bideo honek, eta zuzeneko emanaldi berezi batez eman nahi zaio hauspoa. 40 minutuz, Laboaren doinuak eta berorietan oinarrituriko dantzak taularatuko dituzte, Franz Kafkaren *Legearen aurrean* testua (Itxaro Bordaren ahotsen) haritzat hartuta. 24ean Donostian eta 26an Astran.

| GARBINE UBEDA GOIKOETXEA |

BILLARREAN JOKALARI TREBEAK egiten dakien bezala, efektuz eta karanbolaz batu ditu itxura batean urrun, kasik aleatorio, lirudiketenak: Gernika, Lemoiz, Italia, flamenkoa, Mikel Laboa. Nork? *Lau kantari* (Pamiela, 2011) liburuaren egile Juan Gorostidik, ekimenaren produktore den neurrian, baina baita alboan izan dituen bi emakumeek ere. Bata, Manuela Carretta (Schio, 1965) duela zortzi bat urte Laboaren obrak maiteminduzen koreografo eta dantzari italiarra, 2011n *Haika Mutil* edo *Orreaga* flamenkoz jantzi zituen. Bestea, Irati Gorostidi (Eguesibar, 1988), bideo-kamera tresnatzat hartu duen sortzailea, egun Amsterdamen bizi dena.

Emaitza, estreinaldiari aurrea hartuta ikusi dudanagatik, ez da batuketa hutsa, ez da aipaturiko elementuen metaketaz iradoki nahi duen sormen lana, ez da modara lotu den beste bideo bat, ez da flamenkoa han eta Mikel Laboa hemen, edo Lemoiz azal eta



IRATI GOROSTIDI

Bideo lanaren sekuentzia gehienak Lemoizko zentral nuklearraren baitan grabatu zituzten.

Gernika mami. Fin harilkatuta datoz testuinguruari lotutako sentsazioak eta doinuari atxikitakoak, gerrako bonbardaketa, indar nuklearra, oldartzea, suntsiketa, erresistentzia, mamuak, egiaren argi-itzalak, ihesa, aurrera egin beharra. Lipar bakar eta berean, ordukoa eta oraingoa. Geurea eta unibertsala. Lehenagotik ere esana baitu Gorostidik, “artista maitatuak kanonizatzeko joera dugu, mitifikatzekoa, eta gorazarreetan laudoriozko gauza goxoak besterik ez egitekoa; eta, hala, tamalez, irakurketa kritikoa zailtzen da. Baina, diot nik, ikono bilakatu behar ditugu ezinbestean eta beti? Mikel Laboaren kasura etorrita, oso gurea dugu haren lana, baina era berean unibertsala da, eta edozein artistak hartu dezake, eta landu ostean zerbait itzuli guri, esperimentazioaren bidetik, hark egin zuen bezala”. ■



Ezkerretik hasita, Irati Gorostidi, Juan Gorostidi eta Manuela Carretta, Armintzan.

